

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2013ko ekainaren 25a. IX. urtea. 2.616. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Emakumeen beste pauso bat festetan

Tolosako San Joan jaien barruan dantzatzeko den bordon dantzan, lehen aldiz, emakumeek parte hartu dute; sei emakume aritu dira goizeko emanaldian

Tolosarrek lau egun izan dituzte festarako, San Joan egunez egin ohi duten moduan, eskopetarien tiro hotsak nagusitu ziren Tolosako kaleetan **4-5**



Sei emakume atera dira bordondantzari moduan, lehen aldiz, Tolosako San Joan jaletan. MIKEL IRAOLA

Irregularitasunak izan dira atez atekoaren aurkako galdeketa

Tolosaldea Txukun Zizurkilen antolatu duen galdeketa emaitzekin, «oso gustura» **2**

Migel Soroaren omenezkoaren finalerako jende ugari elkartu da

Gipuzkoako Herriarteako Pilota Txapelketa Tolosa finalerako hurbilago **6**

Jokin Aranalde iheslaria atxilotu du Frantziako polizia

Ibarran, gaur eta bihar, mobilizazioak deitu dituzte; udalbatzak mozioa bozkatuko du **3**



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Zabala sagardotegia Sagardo kaxa bat

Garagartza baserria • Aduna
Tel.: 943-69 07 74

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



2 Txindokiko itzala Bi lagunentzat bina sarrera

Larraitx • Abaltzisketa
Tel.: 943-10 43 67 / 628-94 72 53

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



3 Donostiako Aquariuma Bi lagunentzako bina sarrera

www.aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



Parte hartzeko deitu: **902-82 02 40** edo sartu tolosaldea.hitza.info helbidean **ZOZKETAK** atalean.
Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Sariak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza info



Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolan egon ziren jarritar larunbatean eta igandean bozketarako mahaiak. A. IMAZ

Atez atekoaren aurkako galdeketa irregulartasunek nahasi dute

Tolosaldea Txukun «oso gustura» agertu da emaitzekin; atez atekoaren aldekoentzat «iruzurra» izan da

Eneritz Maiz Zizurkil

Tolosaldea Txukun «oso gustura» dago Zizurkilgo atez atekoaren aurkako galdeketa izan duen erantzunarekin, baina hala ere, biharamunean, sarean zintzilik jarritako bi bideoak erakusten duten irregulartasunek eman dute zeresana.

2.246 pertsonako errolda zen bozkatza deitua zegoena. Irregulartasunak tarteko, 1004 bozka jaso ziren, eta horietatik 990 pertsonen egin zuten 5. edukiontzia-aren aldeko hautua. 13 atez atekoaren aldekoak izan ziren eta zuri eta baliogabeko bana jaso zituzten. Bozka horietatik, 300 bat, ordea, bozka delegatuaren bidez emanak izan ziren. Tolosaldea Txukun plataformako Patxi Amantegirentzat garrantzitsuenaren zenbat jendeke parte hartu

duen izan da: «%44-45a izan da bozkatza joan dena, eta oso gustura gaude».

Zizurkilgo Udalak ez du galdeketa-aren gaineko balantzerik egin nahi izan. Joxe Mari Luengo alkateak azaldu duenez, nahiago dute «asteburuan gertatu dena ondo aztertu balantze sakona» egin ahal izateko. Boto delegatuarekin sorturiko irregulartasunei buruz alkateak aurreratu duenez, «guztiok dakigu zer gertatu den».

Irregulartasunen inguruan galdetuta, «guk ahal duguna egin dugu, ditugun baliabideekin. Akaso bakarren bat gertatuko zen», azaldu du Amantegik. Udalak berak antolatu izan balu «garbiagoa» izango zela adierazi du. «Guk ez daukagu NAN zenbakirik, eta ezin dugu ikusi benetan bozkatza joan den pertsona hori paperean agertzen dena denik. Ezin dugu jakin», gaineratu du Amantegik.

Akta egingo dutela argitu du «gardentasuna» bermatu dela adierazteko. «Sinistu nahi ez duenak ez du sinistuko, baina guk gure urratsak egiten jarraituko dugu», dio. «Galdeketa zintzoa

eta garbia izatea nahi bada, egin dezala udalak berak. Eta ez ditzala jarri oztopo guztiak galdeketa zapuzteko». Udalari, «lerro berdinean» lanean hasteko deia luzatu dio. Emaitzak udaletxean aurkeztuko dituzte: «Badakit azkeneko hitza ez daukala udalak, eta era-

“

Galdeketa zintzoa eta garbia izatea nahi bada, egin dezala udalak berak, oztopoak jartzeari utzi»

«Guk ez dugu tranpa egiteko ez beharrik ez nahirik; honek ez dio inori mesederik egiten»

PATXI AMANTEGI
Tolosaldea Txukun plataformako kidea

bakia goragotik iritsiko dela», argitu du.

Irregulartasunak egon direla erakusten duten bi bideo daude zintzilik sarean. Herritar batek *youtube* plataforman zintzilikatu du bideoa. Herritar honek, Rafa Gonzalez izenean ematen du bozka, honek bere izenean bozka emango zuela jakin ere egin gabe. Bideoaren bidez, argi ikusten da, pertsona horrek sinadura faltsua erabiliz bozkatzen duela.

Tolosaldea Txukun plataformako kideak herritarrak bozkatza joatera ez direla ausartzen salatu du, eta honi lotuta, delegatutako bozkaren beharra nabarmendu nahi izan du. «Sei pertsona daude kanpoan kontaktzen, eta ez daude kontaktzen zenbat per-

“

Galdeketa egunetan begirale lanak egiten ez digute utzi eta kanpoan egon gara»

«Zizurkildarren hirutik bik atez ateko bilketari aukera ematea erabaki du, eta positiboa da»

AIZPEA ZABALA
Atez atekoaren aldeko herritar taldeko kidea

tsion joaten diren, baizik eta, ea zeintzuk joaten diren». «Guk ez dugu tranpa egiteko beharrik, ez eta nahirik ere. Honek ez dio inori mesederik egiten», argitu dute.

Bere aldetik, Zizurkilgo atez atekoaren aldeko herritar taldeak, lehenik eta behin, galdeketa izan den bi egunetan begirale lanak egiten utzi ez izana salatu dute. Bertako kide den Aizpea Zabala, galdeketa emaitzak kontuan hartuta balantze «positi-

boa» egin du. Barruan egoten utzi ez zieten, kanpoan egon ziren, eta «752 pertsona» sartu zirela bozkatza argitu dute: «Denak ez ziren zizurkildarrak, eta bateren bat errepikatua ere izan zen». Herritar taldearen ustez, «errol-daren %33a da bozkatza joan dena. Guretzat, zizurkildarren hirutik bat gerturatu da bozka ematera, eta hiru biztanetik bik atez atekoari aukera bat ematea erabaki dute».

Zabalak, «emaitzak onartzeko» eskatu die Tolosaldea Txukun plataformako kideei, eta «boto delegatua iruzurrerako boto aparta» dela ekarri du gogora. Bestetik, «herrian sortzen ari diren giro txarra uzteko eskatu nahi diegu», azaldu du Zabalak. «Herritarrei atez atekoari aukera bat emateko eskatu nahi diegu. Probatzeko, eta ondoren erabakitzeko esango nieke; merezi duela», gaineratu du.

Patxi Amantegik boto delegatuaren beharra nabarmendu duela eta, hori «inondik inora» ez dela horrela argitu nahi izan du Aizpea Zabala: «Ez gara beldurra zabaltzen ari, eta eskuak garbitzeko aitzakia bat da beraiena. Inongo bozketetan ez da onartzen delegatutako bozka».

Kuboa ateratzera joan diren herritarrek ere mehatxuak jaso dituztela Zizurkilgo salatu du herritar taldeko kideak.

Galdeketa gehiago

Tolosaldea Txukun plataformak galdeketa aurrera egingo du. Asteburu honetan, Anoeta, Irura eta Amasa-Villabonan egingo dituzte. Emaitzak herrietako alkatei aurkeztuko dizkietela gogora ekarri dute: «Nahi badituzte aintzat hartu ditzatela, eta bestela egin dezatela beraiek pentsatzen dutena». Bide bera erabiliko dutela gaineratu du Amantegik.

«Tolosaldea Txukun plataformak herri galdeketaekin egin duen joko zikina eta iruzurra» salatu du Zizurkilgo herritar taldeak. Bi bideo daudela ekarri dute gogora taldeko kideak. Hau kontuan izanda, «astebururako deituak dituzten herri kontsultak bertan behera uztea eskatzen diegu. Ez da posible honelako herri galdeketa ostean, aurrera jarraitzea».

«Tolosaldea Txukunek egin duena ez da soilik atez atekoaren alde gaudenon aurkako iruzurra, gizartearen aurkako iruzurra baizik. Are gehiago, atez atekoaren kontra bozkatza joan diren pertsonen egindako iruzurra da, manipulatu, engainatu eta erabili egin dituztelako», adierazi dute atez atekoaren aldeko herritarrek. «Kontsultaren aurretik bagenuen nahikoa arrazoi udalari kontsulta honen emaitzak onartu ez zitzaen eskatzeko. Orain, frogandoa ditugu. Era berean, EAJri eskatzen diogu kontsulta honen baliogabetasuna onartzeko», gaineratu dute.



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

↓ Iragarki laburrak

ETXEBIZITZA

Alokagai. 80 m2 eta 2 logela dituen etxebizitza alokatzeko aukera dago Iruran. Interesa duen edonork, 636 530 000 telefono zenbakira dei dezake informazio gehiagorako.

LAN BILA

Etxeko lanetarako. Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 69 68 82 edo 606 52 19 92ra.

Frantziako polizia atzo atxilotu zuen Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboko mintzakide taldeko kidea

Asier Imaz

Jokin Aranalde iheslaria atzo eguerdian atxilotu zuen Frantziako polizia Heletan, Nafarroa Beheran. Gaztelun jaio eta Ibarrran bizi zen Aranalde, 2002an Iparraldera ihes egin zuen arte. Bertan, bizitza publikoa egiten zuen.

Aranalderen atxilotetaren berri jakin orduko, Ibarrran elkarretaratzea antolatu zuten atzo arratsaldeko. Bertan, 250 lagun inguru elkartu ziren Aranalderen askatasuna eskatzeko. Gaur eta bihar ere hainbat mobilizazio antolatu ditu Sortuk; udalak mozio bat onartuko du gaurko bilkuran.

Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboko mintzakide taldeko kidea zen 67 urteko gazteluarra. Ekainaren 15eko ekitaldiaren harira, hainbat elkarrizketa eskaini

Jokin Aranalderen askatasuna eskatu dute Ibarrran



Berehun lagunetik gora elkartu ziren atzo arratsaldean Ibarrran, Aranalderen atxiloteta salatzen. A. IMAZ

zituen Aranaldek, eta Espainiako hainbat egunkarik, bere aurka egin zuten. Ibarrran bizi zen gazteluarraren aurka euroagindua zegoen indarrean, Espainiako bar-

ne ministroaren esanetan. Jokin Aranaldez gain, Beñat Atorrastagasti lesakarra atxilotu zuen atzo Frantziako polizia Urruñan, Lapurdin.

Gazteluarra Frankismo garaian bi aldiz atxilotu zuten, 1967an eta 1968an. Ondoren, 2012an, berriro atxilotu zuten. 12.000 euroko fidantza zapean aska-

↓ Mobilizazioak

GAUR, HILAK 25

■ **19:00.** Udaletxean udalbatzaren ohiko bilkura. Bertan, Jokin Aranalderen atxilotetaren inguruko mozioa eztabaidatuko da.

■ **19:30.** Prentsurrekoa eta elkarretaratzea Ibarrrako plazan.

BIHAR, HILAK 26

■ **19:30.** Eskualdeko manifestazioa Ibarrrako plazatik abiatuta.

tu zuten azken atxiloaldi honetatik; aurrekoetan bezala, oraingoan ere torturatua izan zela salatzen zuten Aranaldek.

Irudia



ABALTZISKETAN ETA BELAUNTZAN, SANJOANEI AGUR

San Joan suarekin batera jaien azken eguna iritsi zen Abaltzisketara eta Belauntzara. Atzo, egitarau benetan oparoaz gozatzeko aukera zegoen bi herri horietan. Azken herri horretan, Telleria eta Zeberio bertsolariekin egin zuten hamaiketako belauntzarrek, haurrak puz-

garrietan jolasean zebiltzan bitartean. Abaltzisketan, Toka Txapelketan ibili ziren herritarrek, beste hainbat ekitaldiren artean. Artola eta Mendizabal bertsolariak ere bertan izan ziren. Sanjoanei agur esan baldin badiote ere, San Pedroen zain gelditu dira, hilaren 30ean, San

Pedro Eguna ospatuko baitute Larraitzen. 12:30ean mezarekin hasiko dira, ondoren, hamaiketako egiteko. Jana eta edanari laguntzeko, trikitilarien doinuak egongo dira. Arratsaldean, iluntzera arte luzatuko duten emanaldiari berrekingo diote trikitilariak. A. IMAZ

Gutunak

Korsikan Villabonaren zatitxo bat geratu zenekoa

Hiru urte joan dira dagoeneko, San Joan gau malapartatu hartan, Korsikatik mezua jaso genuela. Mikel, urruneko ospitale ilun batean zendu zen, billabonatarrok ez genekien non zegoen hura, itsasoa zeharkatu genuen, berand iritsi ginen hil kaperara, hilik ginen azkeneko, betiko Mikel, argal eta irmo. Gogor borro-

katu zen gaixotasunaren aurka. Gogor borrokatu zen bizitza osoan ere. Mikel borrokalaria zen hitzaren zentzu osoan. Bizitza eskaini zion egitasmo bati.

Independentzia eta sozialismoaren aldeko militante konprometitua zen.

Kartzela, deserria, bere kide izan eta gero, hura salatzea poliziaren aurrean, ezkutuan bizi beharra, elkartasuna, maitasuna, aitatasuna, Korsikako herriaren maitasuna... oso poliedrikoa zen

Mikel, etsaiak izan zitezkeenak ideologikoki, bera gordetzen laguntzeko konkistatzen zituen.

Mikel legez kanpo bada ere, bizitza oso bat eraikitzeko gai izan zen. Gogorra zen Mikel.

1990 bere aita zena ere, Mikel Zalakain, espetxean hil zen, gaizki artatutako bihotzekoak emanda, Martutenen. Hura zaindu behar eta egin ez zuten medikuak gaur ziurrenik beste preso batzuk zainatzeko zereginetan jarraituko dute edo agian estatuak ohoratu ditu

gaizkia egitearren. Euskal disidentzia erasotzea beti izan baita sari espainiar erreinuan. Etxe bereko, familia bereko aita eta semea, borroka baten kate begi, biak bat eginda, Euskal Herriarekiko maitasunez lepotik helduta.

Borrokatzan den herriak soilik lortzen ei ditu helburu handiak, eta gureak borrokatu du, zinez eta gogor borrokatu eta ondorio laztzak ere ekarri dizkio. Baina gaur inoiz baino gertuago dago independentziaren talaiatik. Eta bo-

rrokatu garelako gaude bizirik, herri gisan. Mikel ez zen lehena izan baina azkena izatea nahi dugu. Azkena izatea nahi dugu XXI. mendeko Euskal Herriak bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko aukera gure esku hartu behar dugulako.

Muxu bat amona Piliri, lerro hauek idazten ari garela, jakin badakigulako bere bihotzeko mina sendatzea oso zaila dela. Baina esan behar genuen.

■ **Amasa-Villabonako Sortu.**

Eguraldia lagun, kolorez eta musikaz jositako ekimen ugaziz gozatu ahal izan dute tolosarrek lau egunetan; historiara pasako diren irudiak utzi dituzte aurtengo San Joan jaiek.

Emakumeak lehen aldiz bordondantzari

Mikel Izabela

Zeruari begira igaro zuten Joan den astetokosarek, eta San Joan jaietan eguraldiak zer ekarriko espe- roan. Bada, eguraldia lagun izan da beste behin, eta festa normal- tasunez gozatu ahal izan da. Ostralean Lizardiko eskopeta- ri konpainiako partaideek Sanjo- anei hasiera ematen zuten txupina- zoa bota zutenetik, ekitaldiz bete- tako lau egun izan dira.

Larunbatetan, ostera, 1.600 gazte bildu ziren Euskal Herria plaza- n kuadrillen eguneko bazka- rian. Beste batzuk ezin izan zuten bertan izan, gutientzako le- kurik ez baitzegoen. Autolatzaile- ek balantza «oso positiboa» egin dute: «Gutxi» normaltasunez joan zen eta jai giro polita izan go- ztuen».

Garai berriak tradizioetan

Baina 2013ko San Joan jaiak his- toriara pasako den beste trudu bat utzi dute. Izan ere, emakumeek le- hen aldiz hartu dute parte bor-

dondantzari izanez. Urte askoko tradizio horretan, orain arte, gizo- mezkoak soilik ateratzen ziren dantzari gisa.

Aurten sei emakumek danta- zu dute, eta «esperientzia ikaraga- rria» izan dela eta «herriaren- gan izan duen harreara ona» ikasi- ta, errepikatzea espero dute. «Eta hurrengo urtean emakume kopu- ru bera edo handiagoa aukera daukagu», azaldu dute.

Bien bitartean, Tolosako musi- ka bandak, txistulari, dulzainero eta eskopetari konpainiek musi- ka, tiro hotzak eta kolorez ezarri- zioten atzoko egunari. Milaka la- gun bildu ziren goizean gototik kaleetatik zehar desfilea egiteko.

Eguraldian, Joseba Andueza zena oroitzen zuten Euskal Herria pla- zan. Seisidiei oroigarriak eman zitzaizkien eta bertso bat kantatu ostean, bi karga bota ziren haren oneraz.

Sanjoanekin batera ere atzean utzi da udaberrira, eta ongi etorria eman zaien udari. Hala ere, hodi- raldi zerrara hasitako urterik ez dela posible izango denbora batuz.



Bordondantzari atara diren lehenengo emakumezkoak. M. IZABELA



Bordondantzariak Santa Maria plaza- n hasi zuten aratsaldeko saioa. M. IZABELA



Kolorez bete zen Plaza Zaharra, goizean eskopeta- ri gutxiak elkartu zirenean. M. IZABELA



Udal korporazioa goizean zehar aratsaldean kalez kale ibili zen. Eskuinean, Joseba Andueza Kabi Alai elkartearekin egindako omenaldian une bat Euskal Herria plaza- n. M. IZABELA



Udal Musika Bandak bere lana bete zuen egun gutxi zehar. Eskuinean, Tolosako kadete mailako batetako arruntariak esfortzu berraz, berraz, irabazko zuten finalean. M. IZABELA



Larunbeteke kuadrilla eguneko bazkarian 1.600 lagun elkartu ziren. San Joan gauean sua protagonista izan zen beste behin. A. MAZA TERROLDI





Larunbatean jokatu ziren Migel Soroaren oroimenezko Ogi Berri Txapelketako finalak, Beotibarren. ASIER IMAZ

Maila handiarekin eta giro politarekin amaitu da Migel Soroaren oroimenezkoa

Tolosak irabazi egin du Bidegoianen aurka, Herriarteko Pilota Txapelketan

Iñigo Terradillos

Migel Soroaren oroimenezko Ogi Berri Pilota Txapelketa iritsi da amaierara. Larunbatean jokatu zituzten estreinako txapelketa honetako finalak Beotibar pilotalekuan, eta giro ezinhobea nagusitu zen, jendetza bildu zelako pilotalekuan, eta pilotariak joko polita erakutsi zutelako.

Hiru mailetakoko finalak izan ziren ikusgai Tolosako frontoian. Nagusien mailan, Iñaki Artola eta Xabier Tolosa nagusitu ziren. Hain zuzen ere, 22-18 irabazi zuten Arrieta eta Gorrotxategi hereniarren aurka. 8-12 joan ziren atzetik Alegiko aurrelaria eta Anoetako atzelaria, eta pixkanaka partidari buelta ematea lortu zuten, batez ere, atzelari hernaniarra erasotzearekin. Azkenean, etorkizunean zeresan handia emango duen eskualdeko bikotea izan zen txapelketako irabazlea.

Etorkizuneko mailan, berriaz, Dariok eta Sarasak irabazi zuten Espinal eta Ibarrondoren aurka. Nagusiek baino errazago izan zuten, markagailuak erakusten duen moduan, 22-8 garaitu baitzituzten aurkariak. Kadeteen mailan, bestalde, Ander Errandoneak eta Etxeberriak 22-14ko markagailuarekin erraz garaitu zituzten Bakaikoa eta Urdanpille-



Tolosa eta Bidegoianen arteko herenungo partidetakoa une bat. J.A.

ta, 64 minutu iraun zuen partidak.

Dario errioxarra ere nabarmendu zen larunbateko finalean erakutsi zuen mailarengatik. Eskuinez nahiz ezkerrez ederki moldatzen zela erakutsi zuen. Baita, Errandonea beratarra ere. Erasoa erakutsi zuen indarrari esker lehendabizi partida berdintzea, eta ondoren irabaztea lortu zuen.

Tolosa, garaile Herriartekoan

Bestalde, Tolosak Herriarteko Pilota Txapelketako finalean sartzeko pauso garrantzitsua eman zuen herenegun. Bidegoianen aurka jokatu zuen, Beotibarren, eta kadeteen mailan 4-22 eta jubenil mailan 5-22 irabazi ostean, 1-2 aurreratu dira tolosarrak. Gainera, 25 tantoko abantaila izango du Tolosak Bidegoianen aurrean.

↓ Emaitzak

MIGEL SOROAREN OROIMENEZKO I. OGI BERRI TXAPELKETA Nagusien maila

Artola-Tolosa 22
Arrieta-Gorrotxategi 18

Etorkizuneko maila

Dario-Sarasa 22
Espinal-Ibarrondo 8

Kadeteen maila

Errandonea-Etxeberria 22
Bakaikoa-Urdanpillela 14

GIPUZKOAKO HERRIARTEKO PILOTA TXAPELKETA

Tolosa 2
Bidegoian 1

Lizaso eta Alkorta bigarren eta hirugarren postuan

Sega Txapelketako finalean Lizaso asteasuarra irabaztetik gertu izan da; Esnaolak jantzi du txapela

I. Terradillos

Gipuzkoa Sega Txapelketa irabazi du Igor Esnaola legorretarrak. Bere atzetik geratu dira Juan Joxe Lizaso eta Mikel Alkorta asteasuarrek, bigarren eta hirugarren postuan, hurrenez hurren. Herenegun jokatu zen Aian, 400 ikusle inguru bildu zituen finala.

Lau segalari aritu ziren txapelaren lehian finalean: Igor Esnaola, Juan Joxe Lizaso, Mikel Alkorta eta Mikel Garaialde. Bakoitzak zortzi sail zituen ebakitzeko, guztira, 1.700 metro, baina lauretako inork ez zuen lortu guztiak amaitzea. Ordubete igaro, eta epaileak

saioa amaitzeko txistua jo zuenean Esnaola eta Lizaso soilik ari ziren zortzigarren sailean lanean. Beste biak artean, zazpigarrenean ari ziren.

Lizaso eta Esnaola ziren faborito nagusiak, eta saioaren hasieratik erakutsi zuten irabazteko aukera handienak beraiek zituztela. Esnaola legorretarrak proba hasi eta berehala hartu zuen aurrea, baina Lizaso gertu izan zuen. Lizasoren atzetik beste asteasuarra, Alkorta jarri zen, eta honen atzetik, Garaialde. Probaren amaierara arte horrela mantendu ziren.

Segalariak lana bukatu zutenean pisatzeko unea iritsi zen. Esnaolak 4.564 kilo bildu zituen; Lizasok 4.536 kilo; Alkortak 4.478 kilo; eta Garaialdek 4.120 kilo.

Gipuzkoako Txapelketaren ostean, Euskal Herrikoaren txanda izango da, eta hor ere izen berberak izango dira lanean.



Lizaso, Alkorta, Garaialde eta Esnaola, sari banaketan. HITZA

Irudia o Alegia



DENBORALDIARI AGUR

Pilota denboraldiari behar bezalako amaiera emateko, Intxurre taldeko alebin mailako neska-mutilek festa txiki bat egin zuten ostiralean. 33 pilotari elkartu ziren, eta elkarrekin afaldu zuten. Argazkiak egin zituzten, eta baita zozketak ere. Gurea egon zirela, eta «giro aparta» izan zela nabarmendu dute. HITZA



Lauburu taldeko jokariak. HITZA

Lauburuk bigarren mailan jokatu du datorren urtean

Txubelek entrenatzaile izateari utziko dio, eta Juanan Rodrighez taldea kudeatzera igaroko da

I. Terradillos Ibarra

Lauburu taldea bigarren B mailan lehiatuko da datorren denboraldian. Pasa den maiatzaren 18an ligako txapeldun titulua lortu zuen Ibarra areto futbol taldeak, eta ordutik mailaz igo ala ez eztabaidatzen egon eta gero, azke-

nean taldeak goiko mailan lehiatzea erabaki du.

Azaldu dutenez, «mailaz igo-tzeak eskaera handiagoa dakar, bai kirol aldetik, bai eta ekonomiko ere». Baina, «taldeak maila horretan lehiatzea merezi duenez», igotzea erabaki dute.

Bestalde, aldaketak izango dira taldean. Juanan Rodrighez itzuliko da, eta kudeaketa eta kirol zuzendaritza alorrean ariko da. Txubel, berriz, entrenatzaile izatetik, kudeaketara pasako da, eta horrez gain, harrobiko talderen bat entrenatuko duela adierazi dute Lauburutik.

Aiztondo sailkatu da Giza Proba finalerako

I. Terradillos

Gipuzkoako Taldekako Giza Proba Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zuten larunbatean Urretxun, Aiztondok, Zizurkilek eta Urretxuk. Urretxu izan zen lehena 47 plazarekin, Aiztondo bigarrena, 45 plazarekin, eta hiru-

garren geratu zen Zizurkil, 44 plazarekin. Ondorioz, Aian abuztuaren 4an jokatu den finalerako Urretxu eta Aiztondo sailkatu dira.

Bestalde, A multzoko Berrobik, Debak, Mendarok eta Oriok larunbat honetan, hilaren 29an dute lehen kanporaketa, eta uztailearen 13an bigarrena.



Tolosako I. Sari Nagusian, tropela Tolosatik igarotzen, herenegun. JONE AMONARRIZ

Belen Lopezek irabazi du Emakumeen Sari Nagusia

Anzaren oroimenezko probako garailea Antonio Angulo izan da; bi lasterketek ikusmin handia piztu dute

I. Terradillos Tolosa

Gipuzkoako Txirrindulari Txapelketako azken jardunaldia jokatu zen herenegun Tolosan estreinako aldiz. Tolosa CFk antolaturiko Emakumeen I. Sari Nagusian 100 emakume inguru lehiatu ziren, eta Belen Lopez andaluziarra izan zen garailea.

Lopezek atzetik, 13 segundora Ane Santesteban helmugaratu zen, eta emaitza honi esker Gipuzkoako Txapelketa lortu du errenteriarrek. Eskualdeko txirrindulariei dagokionez, seigarren sailkatu zen Leire Olaberria ikaztegiatarra 24 segundora, eta zazpigarren Irene San Sebastian tolosarra 42 segundora.

Elite mailaz gain, junior eta kadeteak ere lehiatu ziren herenegun proban. Bada, junior mai-

↓ Sailkapenak

TOLOSAKO I. SARI NAGUSIA

Elite maila

■ 1. Belen Lopez	2:27:49
■ 2. Ane Santesteban	2:28:02
■ 3. Sheila Gutierrez	2:28:02
■ 4. Dorleta Eskamendi	2:28:02
■ 5. Eider Merino	2:28:02
■ 6. Leire Olaberria	2:28:13
■ 7. Irene San Sebastian	2:28:31

Junior maila

■ 1. Alicia Gonzalez	1:40:15
■ 2. Lierni Lekuona	1:40:31
■ 3. Alba Teruel	1:40:31

Kadete maila

■ 1. Teresa Ripoll	1:04:39
■ 2. Empar Felix	1:05:35
■ 3. Cristina Soler	1:05:35

ANZAREN OROIMENEZKOA

■ 1. Antonio Angulo	2:50:34
■ 2. Loic Chetout	2:50:34
■ 3. Jonathan Lastra	2:50:36
■ 4. Beñat Txoperena	2:50:36
■ 5. Jaime Roson	2:50:48
■ 6. Egoitz Fernandez	2:50:48
■ 7. Iñigo Ojeda	2:50:48

lan Alicia Gonzalez izan zen lehena, eta bigarren, eskualdeko Lierni Lekuona sailkatu zen. Ondorioz, Gipuzkoako txapeldun berria da Lekuona. Kadeteen mailari dagokionez, Teresa Ripoll izan zen lehena helmugan.

Lasterketak ikusmin handia piztu zuen herritarren artean, eta asko izan ziren Tolosako kaleetan txirrindularien lana ikusten egon zirenak. Atzoko Jose Mari Anzaren oroimenezko proban bezala. Kasu honetan, Cafe Baque taldeko Antonio Angulo izan zen 112,6 kilometro luzerako lasterketaren irabazlea.

Olaberriak zilarra

Bestalde, Leire Olaberria ikaztegiatarra zilarra lortu du Bembibren jokatu duten Espainiako Txapelketan. Anna Sanchis valentziarrek lortu zuen erlojupekoan urrea, eta Olaberria 39 segundora geratu zen. «Askok sufritu dut, baina, oso pozik nago egindako lanarekin», azaldu du. Euskadiko selekzioarekin lehiatu da ikaztegiatarra, eta Irene Usabiagak ere domina lortu du.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldean@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduana, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●● agurrak

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Pintxo hotzak, ikasturtea agurtzeko

Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiak, lehen aldiz, Pintxo Hotzen Lehiaketa egin du ikasleekin

Eneritz Maiz Tolosa

Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiak pasa den astean amaitu zuen ikasturtea. Azken eskola egunean, eta bukaera ezin hobea emateko, ikasleekin, Pintxo Hotzen 1. Lehiaketa egin zuten. «Ikasleek harrera bikaina egin zioten ekimenari eta gogotik saiatu ziren talde guztiak», adierazi dute euskaltegiko ordezkariak.

Hamasei pintxo ezberdin aurkeztu zituzten lehiaketara. Eta guztien artean, honako pintxo hauek izan ziren saria jaso zutenak: Lehen urratseko taldearen, *Lur-Itsasoa* izeneko pintxo izan zen lehen saritua. Hirugarren urratseko taldearen, *Amanita Muskaria* izeneko pintxo ondoan, eta hirugarren sailkatua, *Alfabetatze* taldearen, *Itsasoko Izarra* izeneko pintxo. Euskara ahoan, giro ederrean agurtu zuten ikasturtea.



Pintxo Hotzen lehen lehiaketara hamasei pintxo aurkeztu zituzten. HITZA



Lehen argazkian, pintxoei puntuazioa ematen, eta bigarrean, lehen saria eskuratu zuen pintxo. HITZA

**berria bekak
2013**

Kazetaritza arloa
zortzi beka

Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

EZAUGARRIAK:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, irailetik ekainera
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietara

Aukera ezazu,
bizi euskaraz.
berria

Eskaerak aurkezteko epea: 2013-07-08 • Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean eskura daiteke

KARIBera
joan nahi al duzu?

Maukarekin
Karibera doan joan zaitezke!
Izena eman hemen eta parte hartu
Karibera astebete doan
joateko zozketan.

zozketa.mauka.eu

berria

**Egin HITZAren
HARPIDEDUN**

ekainaren 1etik uztailaren 22ra arte,
ETA JASO:

Barrenetxe
www.barrenetxe.com
sasoiko
barazkien
otzara

Harpidedun egiten diren
guztien artean

**Orduñako Aisia
hotelean,
bi pertsonarentzako
asteburu baterako
egonaldia
ZOZKATUKO DUGU**

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza